

- **Kultura:** Gaztelupeko hamar nobedade Durangoko azokan
- **Zer berri:** Emakumeen nortasuna indartu eta beldurrak uxatzeko egitaraua

soraluzeko
hamabostekaria **232.** alea
2010eko azaroaren 26an

@ pil-pilean



**GAZTETXEKO
HAMABOSTALDIA**

**Dantzak, tailerrak,
zinea, poesia, merendolak...**



FRESATZEKO ETA MANDRINATZEKO MAKINAK FRESADORAS-MANDRINADORAS



SORALUCE

Soraluce S. Coop.
Barrio Osintxu s/n
20570 Bergara
Gipuzkoa

Tel. +34 943 76 90 76
Fax: +43 943 76 51 28
soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com

**TXURRUKA
JATETXEA**

www.txurruka.com
943 75 15 81

TXURITXU

Zukin
gozatzen

943 75 24 43
Santa Ana kalea 22 behean

**MARI MAR
HARATEGIA**

*Gurean
Euskal Herriko
produktuak!*

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

Javier Alberdi

Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

**JUAN MARI
ARRAINDEGIA**

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

25. URTEURRENA

ESKERRIK EZKO PLAENTXITZERREI
GUGEN IZANDAKO KONFIANTZAGATIK!

GILTZAK, S.L.

SEGURTASUNA

SARRAILAGINTZA

- Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxen **salmenta** eta **mantenua**
- Segurtasun eta lheserako **instalakuntzak**
- Sarrailen **egokipenak**
- Era guztietako giltzen **kopiak**
- Trabatutako atek **askatzen** ditugu

**8.00etatik 24.00ak
larrialdiko zerbitzuak
943 70 13 91**

Arrogueta 3
20600 EIBAR
GIPUZKOA
T. 943 70 13 91
F. 943 20 86 99
giltzak@giltzak.com
www.giltzak.com



OSKAR ELIZBURU



MAITE ETXEBERRIA

HOGEI MILA, BAI?

Epa, Maite, zer moduz? Aurtenguan berrido etorriko don Korrikia, 17garrena, hau don hau abixaria! Elkarrekin makina bat kontu eta pasadizo jaukanau, Korrikiakin; a zeurtiak elkarrekin Plaentxiko AEKn bizi izandakuak! Eta Korrikia, hik ondo-ondo dakiñ, iñoiz ez don geratzen, eta (16garrenaren amaieria atzo izan zalakuan!) akordau orduko etortzen don ekitaldi barrixa.

Hik oso ondo ezautzen don zelako lana eta biharrezkua dan Korrikia antolatzia, zenbat pertsonen ahalegiña eta zenbat ilusiño...Eta orainguan be, bajakiñat lagun eukiko haugula, *gure Plaentxian*, dana ondo-ondo jua de in.

Dana dala, *Korrika Laguntzailiaren* inguruan jarduteko idatzi dumat; ikusi ninddunan aurkezpen ekitaldixan? Berrido be eskian hasi gaitun Korrikan; antolaketia egitteko ezinbestekua dan laguntzia, bestalde. AEKren egoera ekonomikua zeozer hobetu badon be, oraindikan gure sektoria ez jaon normalizata, makinabat zulo jaon betetzeko gure Euskal herri zabalian! Jakiñekua don Nafarruan eta Iparraldian finantzaziño egokittik urrin dabizela; eta horregaittik egiten jonau behin eta berrido Korrikia, dirua be bihar dogulako. Bajakiñat horretan be laguntzaille izango haizela, eskatzen diran 12€ horrek ipiniko dittunala, txintxo-txintxo. Baiña lagunak aprobetxatzeko dirala eta, (harekin ondo pasatzeko eta penak kontatzeko be bai, jakiña) galdera pare bat botako dumat -eskarixa be badon- : Zer jaukan Korrikiak horrenbeste laguntzaille eta partehartzaile eukitzeko? Zeintzu dittun, ba, laguntzaile izateko arrazoiak?

Bai, gaixa ezaguna dok benetan! Eta erantzuna barru-barrutik irtetzen jatana. Korrikak ilusina adierazten jok, emozinuak azalarazten jittuk, kolektibo izaera bizitzera bultzatu, taldian gogoxo, nahi eta desio komunak piztu eta bidian jarri.

Horretan danok partaide garala ikusten jau geure burua, tanttan asko itxaso zabalian, berdin dok ekarpena ama hizkuntza euskara dogunok egin, edo ikasten ari diranak, edo euskarakin zipriztin epelak sentitzen hasi berrixak diranak. Kontua dok gure ekarpenak balixo dabela ikustia eta horretan protagonista izatia.

Bajaukak Korrikak zerbait aneztrala, belaunaldiz-belaunaldi transmititzen diran ipuin, ohitura eta izen gabeko sentimendu eta bizipen sakonak bezalakua, eta horrek ttakka! ikutu eta lotzen gaittuk. Lurrari sustraitzen, orainian bizitzen eta gerora begira jartzen gaittuena. Hori ez dok bakarrik hemen gertatzen. Kanpua be, munduko hainbat txokotan Korrika egitten juek euren hizkuntza normalizatzeko bidian elkarrengandik jasotako ideiak hartuta, Kataluinan edo Irlandan, esate baterako.

Zer indar dago futbol, sare sozial, musika jaialdi eta Korrikan atzian? Adituen arabera, emozinua dok gakua. Sumendixan indarra jaukak honek Oskar, eta geure zeluletan pega-pega eginda gelditzen dok, albokuari pasatzen dotsak eta horrek, berriz besteari eta kate luzia osatzen joaten dok, Kate indartsu eta bizixa. Poetak esaten zeban moduan, *eta horrela bizitzen gara sortuz ta sortuz gure aukerak ...kate horretan denok batera gogorki loturik gaude*. Sentimendu, emozino horrek lotzen gaittu.

“**Zer jaukan Korrikiak horrenbeste laguntzaile eukitzeko?**”

Oskar Elizburu

“**Danok partaide garala ikusten jau gure burua, ttanttan asko itsaso zabalian**”

Maite Etxeberria

Goguan hartzeko

EAE n diru laguntzen politikan aurrerapausoak baino atzerapausoak ez ote dira emango?

Edurne Brouard



GUTUNAK

**Arluziaga
jaunari
erantzunez**

Gure taldeak, aipatu zenituen mozioen aurrean, ondorengoa zehaztea nahi du:

Urriaren 6an izandako bilkuran ezker abertzaleak torturen aurkako mozioa aurkeztu zuen. Mozioaren zioan ondorengoa zehazten zen "PSOEk estatuko aparatuen bidez eta Rubalcabaren hitzetan PNVrekin adostasunez garatzen duen politika arduragabe honi aurre egitera deitzen dugu euskal jendartea". Ulertuko duzun bezala gure taldeak ez du mozio hau babestuko. Honen ordez alternatibo bat aurkeztu genuen. Bertan argi zehazten zen oinarritzko eskubideen, torturaren, lege kanporaketan eta adierazpen askatasunaren erasoaren aurka gaudela.

Euskal preso politikoaren egoerari buruzko mozioari dagokionean ere, mozio alternatibo bat aurkeztu genuen legeak agintzen duen denbora eta forman. Gure harridura alkateak ez zuela eguneko gai zerrendan barneratu. Plenoan bertan gure mozioa urgentziazko mozio bezala onartua izan zedin eskatu genion. Berriz ere ukatu egin zigun, bigarren aldiz. Ondorioz aretoa utzi genuen alkateak izan zuen jarrera salatuz. Amaitzeko esan nahi dugu gure taldea era guztietako biolentziaren aurka azaldu dela beti. Eta herri honetako normalizazio politiko eta bakegintzaren alde lan egiten jarraituko duela.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

**Euskara,
jalgi hadi
mundura!**

1 545. urtean, euskaraz argitaratutako lehendabiziko liburuan, Bernat Etxeparek «Euskara, jalgi hadi plazara; Euskara, jalgi hadi mundura» idatzi zuen. Bostehun urte geroago, globalizazioaren, komunikazioaren eta Interneten egun hauekin, Etxepareren aldarria egia bihurtzen ari da. Zorionez, euskara eta euskal kultura atera dira plazara, atera dira mundura.

Soraluzetarrok zerikusi handia daukagu horretan, urte hauekin guztietan ahalegin handia egiten dihardugulako euskara zaindua, lagundua eta biziberritua izan dadin, euskarak plazara eta mundura irten dezan. Herritarrok erakutsitako jokabideari eta sostenguari esker, euskarak asko aurreratu du gure artean.

Baina euskara ez dago oraindik salbatua, eta aurrerantzean ere, orain arte bezala, kementsu jarraitu beharko dugu, hizkuntzari egiazko balioa erabileraren poderioz ematen baitzaio.

Datorren barixakuan, abenduak 3, Euskararen Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta, sinbolizatu egingo dugu soraluzetarrok urteetan euskararen alde egiten dihardugun ahalegina. Plaza Barritik helioz betetako 500 globo bidaliko ditugu zerura, euskara plazatik mundura jalgi dadin, irten dadin.

Zure laguntza behar dugu horretarako. Zatoz zure familia guztiarekin ostiralean arratsaldeko 5etan Plaza Barrira, hartu zure globoa eta bidali zerura!

EGUNA: Abenduak 3.

ORDUA: 17:00

TOKIA: Plaza Barria.

Soraluzeko Euskara Batzordea

pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Aitor Morillo

Soraluze ere patin gainean!

A animatu zarete uda honetan ahaztuta zenituzten patinak hartu eta beraiekin pare bat bueltatxo ematera? Gogoratzen baduzue duela ale batzuk Bergarako Hanka-Labanka patinatzaile elkarteari buruz hitz egin nizuen zutabe honetan. Gaurkoan ere patinei buruz hitz egingo dizuet. Berriz? Bai, barkatu gaia errepikatzea baina oraingo honetan patinatzea gustuko dugunontzat berri interesgarri bat daukat.

Azken hilabeteotan Soraluzeko eta Elgoibarko zenbait pertsona, ia domekero, kiroldegian batzeari ekin diogu. Bertan, bakoitzak bere mailan, patinaiarekin lotutako hainbat ekintza burutzen ditugu; hala nola, teknika hobetu, konoak egin, hockeyan jokatu... Hasiera batean lau pertsona baino ez ginen biltzen baina azken domekan hamar lagun batu eta primeran pasatu genuen!

Zutabe honetatik patinatzea gustuko duen edo patinatzen ikasi nahiko lukeen edozeini domeketan kiroldegira gerturatzeko gonbitea luzatu nahi diot. Hitzordua? goizeko 11:30ak. Norberak patinak, babesak eta kaskoa ekarri beharko ditu, azken bi hauek oso garrantzitsuak. Baina batez ere, oso ongi pasatzeko gogoia! Animatu eta etorri patinatzera!

Javier Mestre, herriko antena muntatzailea

Apirilaren leantzalaldi analogikoaren azken fasea izan zen eta ordutik, telebista ikusteko LTD deskodegailua behar-beharrezkoa da. Orain berriz, Euskaltel enpresak, zuntz optikoa hedatuko du herriko etxe guztietara. Javier Mestre argentinarra antena muntatzailea da; bien arteko ezberdintasunak azaldu dizkigu.

Zer ekarri digu LTDk?

Bide digitaleko teknologixen aplikazina ahalbidetu dau Lurreko Telebista Digitalak. Herriar danak igarri dabe eragina, etxietan katai gehixago ikusten diralako. Irudi eta soinu kalitatia ikaragarri hobetu da, bereizmen haundiko irudixak lortuz eta soinu emaitza handiagua bereganatuz.

Berritasun gehixago etorriko dira LTDkin?

Azken bost urtietan teknologixen munduan gertatu diran aldaketak abixada bizixan etorri dira eta honek bat-batian ulertzia zaila da. LTDn 2. fasia dator oin baina herriar danak ez dittue derrigorez aldaketa honek egin bihar, telebista definiziño haundiko kataietan ikusi nahi dabenak eta horretarako pantaila egokixa daukenak bakarrik.

Laster baina, zuntz optikua be erabilgarri izango da.

Bai, seguruenik urte bukaeria baino lehen.

Ze desberdinttasun dago bixen artian?

LTDk eskaintzen daben programazina publikua da, ezer

ordaindu barik ikusten da. Euskaltelen zuntz optikuak katai gehixago eskainiko dittu, baina honek ikusteko ordaindu egin bihar.

Zein da bakoitzak daukan funtzina?

Bai LTDk, baita Zuntz Optikuak telebista kataiak eskaintzen dittue, bata publikua da eta duakua, bestia pribatua eta ordaindutakua. Zuntz optikua ordaindu ostian enpresako langiliak arduratuko dira egin bihar diran aldaketak egittiaz, hilero kuota bat ordaintzian truke. Nere lanan parte da kuota hori hilerro ordaindu nahi ez dabenen antetan aldaketak egittia.

Aldaketa gehixago izango dira hemendik gutxira?

Aro digitalian etenbareko aldaketak emongo dira, baina aldaketa nagusixa apirilekua izan zan, itzalaldi analogikua. Hemendik aurrera etxietako erosotasunakin lotutako berritasunak izango dira nagusi. Onena teknologixa berrixerri adi egon eta zalantzak neri galdetzia.



“LTDa duan da, zuntz optikua ordaindutakua”

HNOS. BENITO ANAIAK



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47

Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

2395 euro Ruandara

Aurten ere Misio Taldeak Gaztañerre Egunean etxean egindako goxoekin postua jarri eta 2395 euro lortu ditu Ruandako Mugina herrialdean eraikitzen diharduten haur hezkuntzako eskola batean komun berriak egiteko. Muginan, komunen ordez lur-rean egindako zuloak dituzte eta handiegia dira bertan kasi behar dutenentzat. Laster komun berriak izango dituzte, ikasleen bizi kalitatea hobetu eta eskolaratzea bultzatzeko. Misio Taldeak laguntzaile lanetan ibili diren denei eskerrak eman nahi dizkie, baita erosleei ere, hurrengo ekitaldietan parte hartzeko gonbitea luzatzeaz gain.

Gabonak aurretik ere denda izango dute

Taldeko arduradunek jakinarazi dutenez abenduaren 10etik 21era bitartean, Santa Ana kaleko Chip eta Chop dendan (gaur egun ez dago erabilgarri), bidezko merkataritzako produktuak salduko dituzte; Perutik, Ekuadorretik eta Mexikotik zuzenean ekarritako produktuak hain zuzen ere. Eskulanak eta bitxiak izango dira eskuragarri, besteak beste.



Misio Taldeko kideak

Euskararen Egunean globoak zerura

Abenduaren 3an Euskaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. Bernart Etxeparek 1545. urtean euskaraz idatzitako lehen liburuaren izenburua aitzakiazat hartuz, "Euskara, jalgi hadi plazara; Euskara, jalgi hadi mundura"; arratsaldeko 17:00etan Plaza Barritik helioz osatutako 500 globo jaurtiko dira zerura.

Izarren Argia pelikularen emanaldia

Gauean 22:15ean berriz, Barbara Goenagak eta Itziar Lazkanok antzestu eta Mikel Ruedak zuzendutako "Izarren Argia" filma ikusteko aukera izango da dohainik Zinean. Pelikula honek 1938. urtean Saturrarango emakumeen kartzelan gertatutako istorioak narratzen ditu, Frankismoak gidatutako basakerietan oinarritzen direnak. Udaleko Euskara Batzordeak herritarrak ekitaldi honetan parte hartzea gonbidatu nahi ditu.



Filmeko irudi bat

Merkatua Plaza Zaharrean

Herriaren erdialdea oinezkoendako izateko planaren barruan, eguneko merkatua Erregetxetik Plaza Zaharrera pasatu dute. Kokagune berriak, Erregetxeko aparkalekuak bere horretan mantentzeko bidea ematen du.



KZgunea goizez zabalduko da

Soraluzeko KZguneako arduradunak jakinarazi du KZgunea abenduaren 2an, 16an, 23an eta 30ean zabalduko dela, goizeko 9:00etatik 13:00ra bitartean. 16 urtetik goragoko guztiek bertan eskaintzen diren ikastaro denak egiteko aukera dute, dohainik. Interneten ere musutruk nabigatzeko aukera dago bertan.

Informazio gehiago: 943 75 30 45 telefonoan edo tutor.soraluze@kzguna.net helbidean.



MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



Azaroaren 25a, beldur barik bizitzeko eskubidearen aldarria

Bertso afaria Allegro Elkarte

Aurten mende erdi bete du Allegro Elkarteak eta urteurreneko azken ekitaldia zein izango den aurreratu dute juntako kideek. Abenduaren 17an izango da eta bertso afari batekin itxiko dute urteurreneko egitaraua. Anjel Mari Peñagarikano, Amaia Agirre eta Eneko Beretxinaga bertsolariak arituko dira hitza jolas.

Soraluzeko Basobidez finalista

Udalsareak, Tokiko Agenda 21a lantzen duten EAEko udalen sareak, 2010. urteko egitasmo onenak sarituko ditu datorren eguaztenean, abenduaren 17an. Udal Gobernu Taldeak "Soraluze Basobidez" egitasmoagatik "Biodibertsitate eta aldaketa klimatikoa" deritzon atalean 47 udalerrien artean saria jasotzeko finalista postua lortu du. Roke Akizu eta Jose Luis Arizaga joango dira datorren eguaztenean Bilboko Alhondigana egingo den ekitaldira saria jasotzera. Bertan jakingo dute baina, Soraluze saritua izango den edo ez.

Txurruka askatzeko kontzentrazioa Loion

Joan den zapatuan 40 bat lagunek Lurdes Txurrukaren askatasuna eskatzeko kontzentrazioa egin zuten Loion, bera atxilo hartu eta Angel Irababalbeitia "Txorta" indar polizialeko enfrentamenduan hil zen tokian bertan. Berari zuzendutako hitz batzuku irakurri zituzten, aurrekua dantzatu eta lore eskaintza ere egin zieten.

80 urtetik goragokoen bazkaria

Zapatu honetan, azaroak 27, 80 urtetik goragoko nagusiek urteroko bazkaria egingo dute Itxaropena Jubilatuen Elkarteak. Bazkalduek, elkarteak bazkide nagusien opari bana emango zaie eta jarraian dantzaldia izango da. Iaz, Juanita Aseginolasa eta Eugenio Gabilondo omendu zituzten.

Azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Aukako Eguna aldarrikatu zen mundu osoan, baita Soraluzen ere. Herriko gizonen eta emakumeen indarrak bat egin eta elkarrekin "Beldur Barik" lamepean elkarretaratzea egin zuten arratsaldeko 19:00etan Plaza Barrixan. *(Aldizkari honek elkarretaratzea egin aurretik edizioa itxi egin behar izan*

Egitaraua:

Abenduak 2, 18:00etan,

Saio Aretoan:

"Amores que matan" film laburra (doan) eta ondoren kafe tertulia, tratu txarren inguruan. Hizlariak: Jaione Iriarte (psikologoa) eta Enma Larrea (aktorea).

Abenduak 22, 18:30ean,

Zinean:

"Anbotorako bidean Mariren gerrikoa" emakumeendako antzerki eta jolas tailerra, Idoia Alberdi eta May Serranoren eskutik. Izena emateko epea: Abenduak 17, udaletxeko bulegoetan.

zuen). Ekitaldi hau baina zerrenda luze baten hasiera besterik ez da izan. Emakumeen Batzordeak eta Yoana Azpitarte berdintasun teknikariak, bereziki emakumei zuzendutako ekitaldiak antolatutuzte. Herriko emakumeen izaera indartzea eta beldur barik bizitzeko eskubidea aldarrikatzea nahi da antolatutako egitarauarekin.

Urtarrilak 15, 10:00etatik 14:00ra

eta 15:30etik 19:30era

Erakusketa gelan:

Autodefentsa ikastaroa, Maite-na Monrroy-ren eskutik.

Izena emateko epea: urtarrilak 12.

Prezioa: 10 euro.

Urtarrilak 26, 19:00etan

Zinean:

NAGORE (Nagore Laffage) Elena Tabernaren film dokumentala.



Udalak azaroaren 25ari begira ateratako irudia.



Discinua eta Formena

Polígono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2

T. 943 75 16 13

GAZTETXEKO KULTUR HAMABOSTALDIA

Gabonak gozatzeko beste modu bat

Soraluzeko Gaztetxeak prest dauka "Hamabostaldi Kulturala". Abenduaren 15etik urtarrilaren 18ra bitartean eskukada bat ekitaldi antolatu dute. Pil-pilean bertako asanbladarekin egon da, hamabostaldiaz eta herriko gaztetxeaz berba egiteko.

Urteurren jaixa biharrian...

Hamalau bat urte zituztela hartu zuten parte lehenengoz asanbladan. Ordurako jardunaldi kultural hauek urteetan martxan ziren. Ez dakite zehaztasun osoz zenbat urte daramatzaten kultur eskaintza potolo hau antolatzen. Argi dutena da jardunaldiok bereziak direla. Gaztañerreko datak hurbildu ahala hasten dira Hamabostaldian pentsatzen eta bilera bereziak egiten saiatzen dira dena ondo lotzeko. Beste gaztetxe batzuen moduko urteurren jairik ez eta hein batean ekitaldi hauek hartzen dute funtzio hori: *"Giro bat sortzen da beran antolakuntzan, danon artian gauzak eginez eta bizitasun bat sentitzen da. Jendiak daukazen gabezixak asetzeko aukeria dauka, etorri eta nahi dozun hori zuk zeuk egiteko. Dana dala, bizimoduak eta bizi ereduak hamabostalditik harutzago doiaz eta urte guztian transmititzen saiatzen gara"* azaldu dute.

"Hankahutsik" senegalgo dantzetan

Egitaraua abenduaren 15etik urtarrilaren 18ra bitartean luzatuko da. Gustu eta estilo guztietako ekitaldiz blai dator. Aben-

duaren 17an Elgoibarko "Hankahutsik" bikoteak poesia emanaldia eskainiko du. Proiektu nahiko berria eta originala da. Eurek idatzitako poemak errezitatzen dituzte eta gitarrarekin lagunduta abestiak interpretatu. Normalean bi dira kideak, baina Soraluzen saxofoilari lagun batek lagunduta arituko dira eta proiektu berri hau ezagutzeko aukera izango da. Bestetik, gorputza astintzeko aitzakiarik ere ez da faltako; herriko senegaldarrek dantza afrikarrenikastaroa eskainiko dute. Kontaktua eurak egin zuten Gaztetxera entsegu lokal bila joan zirenean: *"Euren dantzak entsaiatzeko leku bat bihar zebeñ. Herriko lokalak nahiko beteta dare eta eurak asko diranez Gaztetxian egin zeikiela esan gontsen. Oso jatorrak dira, asanbladara be etorri izan dira eta euskeraz saiatzen dira"* azaldu dute.

Autodefentsa tailerra, bertso merienda eta raperoen jaialdia

Elkarrengandik urrun dauden bi estilok eta kulturek bat egingo dute egun berean. Arratsaldean hiru bertsolari arituko dira Bertso Meriendan eta iluntzerako raperoen jaialdia prestatu dute. Haundia izango da jaia, hiru rapero talderekin eta ahoaz soinu originalak ateratzen dituzten "bebop", dantzarietaguzti. Herriko ipuin kontalariek ere euren hazitxoak ipiniko diote Hamabostaldia-ri. Abenduaren 30ean umeendako eskulaneekin eta ipuinak kontatuko dituzte:

"Gaztetxea dotore ipintzen saiatuko gara, giro goxua lortu eta umiak gustora egon daittezen". Egun osoko autodefentsa tailerra

"Bizimoduak eta bizi ereduak urte guztian transmititzen saiatzen gara"

"Autodefentsa tailarretik indarberrittuta urtengo dozu"



ere egongo da: *“Esther Lopez adituak emongo dau tailerra. Alde fisikua zein psikologikua lantzen dau, berba asko egitten da. Esperientzia pertsonalak eta egunerokotasuneko gaixak ipintzen dira mahai gainian eta indarberrittuta urteten dozu ikastarotik”* dinue. Ikusentzunezkoek ere izango dute euren protagonismoa. Astelehenero bideo emanaldiak eskainiko dituzte, “Campanamento de Dios”, “Hermana Magdalena” eta langile borrokaren gaineko hirugarren filme bat. Gainera, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean Monthly Python britainiarren pelikula ironiko zein barregarriak proiektatuko dituzte. Iazko Hamabostaldiarekin alderatuz, aurtien ez da hitzaldirik eta antzerkirik egongo. Bai ordea, mendi buelta (Basalگو-Krabelinaitz-Sagarrerreka), truke azoka, auzolana, eskulan tailerra, malabare jolasak e.a.



Iazko burututako zenbait ekintza



“Asko eskertuko genduke jende berrixa asanbladara baletor”

Herrira urtetzeko biharra

Soraluzeko Gaztetxearen egoera pribilegiatua da. Ez bakarrik leku paregabean kokatuta dagoelako, baizik eta ez direlako ari lekua okupatzen eta udal-letxearekin ez dutelako tratuerik egin beharrik izan: *“Ez daukagu baldintzarik, ez dependentziarik eta ez dogu jaso bidaliko gaittuen mehatxurik”*. Hala ere, egia da erreka ondoko eraikin asko moduan, ordenantzatik kanpo dagoen etxea dela euren eta horrek aurrera egingo balu, etxe ilada guztia bota beharko luketela, Gaztetxea barne: *“Nahiko trankil gare ze ez dogu uste plan horrek aurrera egingo dabarik; tartian elkarte eta negozio asko dare. Hala eta be, baleike eraikinak iraun arren, barrukuak, hau da, asanbladak aurrera ez egittia!”* Hori hala ez izateko argi dute zer behar duten: *“Honek iraun deixan belau-naldi berrixak gerturatzia bihar dogu. Hobeto esanda, herrira gehitxuago urten bihar gara eta horretara animatu. Gauzak modu batera egittera ohittuta gare eta beste era batera ikustia, ikustia bakarrik, pilo bat kostatzen da. Asko eskertuko genduke jende berrixa asanbladara baletor”* aitortu dute asanbladako kideek. *“Oin jendia Hamabostaldiko ekintzetan parte hartzera animatu nahi dogu. Baita asanbladan be, eguaztenero batzen gara arratsaldeko 19:00etan eta gonbidatuta zarete!”*

EGITARUA

17	22:00	HankaHutsik (poesia errezitaldia)
18	Auzolana Gaztetxean (egun osoz)
19	Auzolana Gaztetxean (egun osoz)
20	19:00	Bideo emanaldia
21	19:00	Asanblada
22	“Eizu zuk zeuk” (eskulanak, arratsalde)
23		
24	Truke azoka (goizez)
25	Bideo emanaldia
26		
27	19:00	Bideo emanaldia
28	19:00	Asanblada
29	Mendi martxa (goizean). Basalگو-Soraluze.
30	Ipuin kontalaria arratsaldean
31		
1	Bideo emanaldia
2		
3	19:00	Bideo emanaldia
4	19:00	Asanblada
5	Malabare jolasa (arratsaldean)
6	Dantza afrikarrak
7	18:30	Bertso merienda / 22:30 Raperoak
8	22:30	Kontzertua: Mundo matadero + Hard filp
9	Autodefentsa tailerra (egun osoz)
10	19:00	Bideo emanaldia
11	19:00	Asanblada
15	22:30	Kontzertua: Xarma + Branka

Abenduaren 27tik urtarrilaren 3ra ARGAZKI ERAKUSKETA egongo da zehaztutako jarduerarik ez dagoenean. Sarrera dohakoa izango bada ere, ekitaldi denetan txapela pasako da, bertaratutako borondatea batu asmoz. OHARRA: egun eta orduetan aldaketak egon daitezke, datorren astean beteko da egitaraua ixteko epea.



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Erdialdea oinezkoentzako ipintzeko udalaren planak aurrera darrai. Aurreko eguenean merkatua Plaza Zaharrean egin zen. Modu honetan, aurrerantzean Erregetxeko autoak mugitzeko beharrik ez da egongo. Hurrengo asmoa erdialdea autoei ixtea izango da. Astegunetan eta asteburuan erdialdera sartzeko ibilgailuek ordutegi bat errespetatu beharko dute.

Ze diñozu merkatua Plaza Zaharran egittiaz?

ROSI GONZALEZ
Etxekoandria



Hemen askoz hobeto goixan baino. Gertuago dago, lekua atseginagua da eta kotxiendako aparkalekuak mantentzen dira. Erdialdia peatonalizatza be ondo ikusten dot, umiak eta nagusixak kalian lasai ibiltzeko modua eukiko dabelako.

M^a JESUS CLEMENTE
Garbitzailia



Nahixago dot Plaza Zaharra Erregetxia baino. Oin merkatua eskurago daukagu eta bertaratzeko nagusixak ez dauke eskilararik igo biharrik. Erdialde barrixakin bizi kalitatia asko hobetuko dogu Soraluzen.

MAXIMINO ROJO
Merkatuko saltzailia



Behian hobeto gare, Plaza Zaharran danok elkarrengandik gertuago eta jendian bistara gare. Traba bakarra furgonetia gure ondora ezin ekartzia da. Baina uste dot hemen gehixago salduko dogula!

JABI ETXABE
Langabetua



Sorpresia izan da ze ez nekixan mobidu bihar zebenik baina edarto dago. Aparkalekuak mantendu egin dittue eta plaziari beste giro bat emoten dotsa merkatuak. Erdialdia peatonalizatza danondako hobe izango dala uste dot.

 **PASCUAL CHURRUGA, s.a.**
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak
Errekalde 21
20590 SORALUZE
T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



**GAZTELUPE
taberna**
tel: 943 75 20 81



Belarrak
**Loradenda
eta
belardenda**
T. 943 75 30 11



Gaztelupeko Hotsak Durangoko Azokan

Abenduaren 4tik 8ra bitartean Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azokaren 45. edizioa beteko da eta Gaztelupeko Hotsak zigiluak ez du bertan egoteko aukera galdu nahi izan. 2010. urtean kaleratutako 10 disko berri jarriko dituzte salgai, besteak beste, Adi Holden, Malatu eta Dinbi Danba taldeen diskoa esaterako. Soraluzeko aditz taulen liburuxka eta baserrien gidaliburua ere salgai izango dira azokan, Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkartearen postuan.

Informazio gehiago:



Abenduko Kultur Agenda

AZAROAREN 28an, domeka

POP-ROCK KONTZERTUA

Arantzeetan (Azpeitia)

20:00etan Arrano tabernan.

Ant: Arrano taberna eta elkarte

ABENDUAREN 1etik 31ra

ERAKUSKETA

Eli Lakuestaren argazkiak

20:00etan Arrano tabernan.

Ant: Arrano taberna eta elkarte

ABENDUAREN 15ean, eguaztena

EGUBERRIKO KONTZERTUA:

19:00etan, Zinian.

Ant: Soraluzeko Musika Eskola

ABENDUAREN 17an, barixakua

MARGO ERAKUSKETA

Juan Manuel Arruabarrena

Inaugurazioa abenduak 17, Oreak Art Aretoan.

Ant.: Oreak Art Aretoa

ABENDUAREN 12an, domeka

ZINEA: "Lagundu! Arraina naiz".

17:00etan Parrokiko Aretoan.

Ant: Atxolin Guraso Elkarte

Eli Lakuestaren argazki bilduma kiroldegian ikusgai

Kontrargi Argazki Kolektiboak Eli Lakuesta argazkilariora soraluzetarraren argazkiez osatutako bilduma ikusgai jarriko du abenduaren 1etik 31ra bitartean kiroldegiko erakusketa aretoan. XX. mendean zehar jasotako gertaerak biltzen dituzte argazkiek.

Argazkilaria, ofizioz eta afizioz

Eli Lakuesta 1929. urtean jaio zen Soraluzen eta 2000. urtean hil zen, 71 urte zituela. Optikoa zen ofizioz eta berak zabalduzako Lakuesta optika dendan egiten zuen lan. Bertan argazkilaria izatea ere egokitu zitzaion eta orduan hasi zen bere argazkilaritzarako zaletasuna uztartzen. Geroago, argazkilaria txartela ere lortu zuen eta bere denbora librean herriko gertaerak argazki bidez jasotzen ahalegindu zen. Herriko txirritularitza mugimendua, industria, mendiko finalista egunak, lagun taldeak eta orokorrean herriko giroa jasotzen dute bere argazkiek. Kontrargikoek argazki denak eskaneatu eta izendatu dituzte.

60 argazki osatutako erakusketa

Guztira 3.500 argazki inguru berreskuratu ditu argazki kolektiboak eta kiroldegian 60 argazki jarriko dira ikusgai. Herritarrek dokumentazio eta identifikazio lanetan parte hartu ahalizango dute, erakusketa bertan jarriko diren fitxak osatuz. Kontrargikoek eskerak eman nahi dizkio Soraluzeko Kooperatibari eta udalari, laguntzaile lanak egiteagatik. Herritar denak abenduaren 1ean 19:00etan egingo den inaugurazio ekitaldira gonbidatu nahi ditu Kontrargik.

Erakusketaren ordutegia

Astegunetan 19 - 20,30.

Zapatuetan 12 - 13,30.



Eli Lakuestaren argazkiak

Herriko kaleak musikaz jantzi dira

Santa Zeziliaren omenegiaz azaroaren 22an herriko musikariek herriko txoko eta bazterrak melodiez jantzi zituzten. Arratsaldean musika eskolakoek, trikitilarien laguntzaz, kalejira egin zuten. Herriko txistulari beterranoak poteoan jardun zuten, musikariren patroia eguna aitzakia hartuta.







MAPFRE



SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabalatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarzo@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak



T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Orbe lehen herritarra Karakatera Igoeran

Joan zen zapatuan Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkar- teak antolatzen duen Karakate- ra Igoera jokatu zen. Ateri eta mendigaina jendez lepo zegoela Elgoibarko Plaza Handitik ekin zuten lasterketa antxixikariek,



Orbe tontorrera bidean

guztira, 60 parte hartzailek. Oier Ariznabarreta durangarra izan zen denetan azkarrena, 30 minu- tu eta 11 segundo eginaz. Sor- luzeko sei lagunek hartu zuten parte lasterketan (iaz baino bat gutxiagok) eta tontorra zapal- tzen lehena, Zigor Alberdi izan zen, 34 minutu eta 37 segundo- tan. Helmugara heltzen hurren- go herritarrak Mikel Hernandez eta Andoni Calles izan ziren, 34 eta 36 postuan sailkatzea lortu zuten, hurrenez hurren. Aurpegi onenaren saria Aritz Arrieta el- goibartarrak eraman zuen.

16	Zigor Alberdi	34'37
34	Mikel Hernandez	38'01
36	Andoni Calles	38'17
39	Gorka Tornos	38'32
51	Luis Ariznabarreta	43'26
52	Gorka Arriaga	43'28

Hamabost herritar Behobia-Donostia klasikoan

Fortuna Kirol Elkartek aza- roaren 14rako antolatu zuen urtero egiten den 20 kilometroko Behobia-Donostia lasterketa eza- gunaren 46. edizioa. Sorluzetik hamabost lagunek amaitu zuten euripean froga eta azkarrena

Javi Gonzalez izan zen, ordube- te eta 20 minututan helmugara iritsita. Maialen Galarraga izan zen helmuga zapaldu zuen he- rriko lehen emakumea, ordubete eta 36 minutuko denbora eginda.

Javi Gonzalez	1:20:38	Alberto Arizaga	1:48:11
Unai Ugarte	1:22:31	Moises Aranzeta	1:48:13
Mikel Calvo	1:26:04	Jose Luis Lasa	1:52:17
Gaizka Azkarate	1:26:28	Aitor Leturiendo	1:53:12
Iñaki Arrondo	1:34:41	Zuhaitz Rodriguez	1:53:49
Asier Rodriguez	1:34:42	Jesus Uzin	1:54:15
Maialen Galarraga	1:36:21	Maite Lete	2:01:19
Unai Ormazabal	1:36:26		

EMAITZAK

PELOTA

Aritz Lasa – Laskurain	16
Saralegi – Zubieta	22

Jauregi – Atxotegi	19
Armendariz – Bergera	22

FUTBOLA

Sora (Erreg. B.) – Urki	2-4
Sora (Erreg. B.) – Aretxabaleta	1-5
Eibartarrak – Sora (Erreg.)	3-1
Sora (Erreg.) – Gazteak	6-2
Sora (Jub.) – Urola "B"	4-2
Ikasberri – Sora (Jub.)	6-1
Eibartarrak – Sora (Kad.)	4-0

AGENDA

PELOTA

Azaroak 30, 17:00etan
Eibarko Astelena pilotalekuan
Mtz de Irujo – Laskurain
Titin III. – Barriola

FUTBOLA

Zapatua 27, 15:30ean Unben
Eibartarrak – Sora (Erreg. B)

Domeka 28, 17:00etan Ipintzan
Bergara – Sora (Erreg.)

Zapatua 27, 17:00etan Ezozin
Sora (Jub.) – Segura Goierri

Zapatua 27, 11:00etan Ezozin
Sora (Kad.) – Elgoibar

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkar-teak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soroluze
GIPUZKOA

Etxabe Harategia



Euskal
txahalkia
Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

ZORION AGURRAK




Zorionak Unai!!
Zure 10. urtebetetzian!!
Ondo-ondo segi deizula eta
muxu haundi bat familiakuen
partez!




Ane Moreno Oya
Azaruan 16xan 10 urte!
Zorionak pila-pila maitte
zaituan familixian partetik!



Nahia Mendia Hernaez
Azaruan 23an 4 urte
Zorionak polittori!
Muxu haundi bat aitaxo,
amatxo eta Eukenen partez!



Ivan Ayora Plata
Azaruan 30ian 15 urte!
Zorionak Txino!!!
Ondo-ondo pasatu eguna eta
formal asteburuan e?
15 patxo gu danon partez!



Lander Ruiz de Luzuriaga
Abenduan 13an 6 urte.
Zorionak polittori eta
muxu haundi bat amatxo,
aitaxo eta Enekoren partez!



Jose Manuel eta Juani!
Abenduan 18xan urtiak betetzen dozuelako,
zorionak motorzaliak!
Beste hainbeste bete deizuela, etxeak!



Nerea, Lore, Martina eta Uxue
Azaruan 11n, 24an, 30ian eta 28xan urtiak betetzen ditzuzelako
Zorionak eta muxu haundi bana
familixa danan partez!

hildakoak

INES FERNANDEZ ORTEGA
ALEJANDRO LIZARRALDE URIBE-ETXEBERRIA
FRANCISCO JUAN HERNANDEZ
JUAN MARIA BORINAGA LOPEZ



LEHIAKETA

- Zein ageri
da argazki
honetan?

Saria:

- Euskal Herriko
"Mapak eta ibil-
bideak" liburuxka
sorta



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea: Nerea Uzin**
- **Lorea Elizburu,**
Iratxo goxodendakua da
aurreko aleko argazkixan
agertzen zan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



SOCIEDAD DEPORTIVAKO KIDIAK

1972. urtian Soralezeko Sociedad Deportiva Elkarteko kidiak etara zeben erretratu hau, sasoi hartan puri-purixan zeguan Kañoi Fabrikian onduan. Erretratu honetako lagunak, 18 eta 20 urte inguru daukez. Helduen mendi irteerak antolatuz arduratzen ziran, Eloi Iriarte lehendakari eta Maite Gorostidi idazkari moduan zerela. 70. hamarkadan herritar gutxik zeuken autoz mendira juateko aukeria; horretxegaitik asko eta asko ziran irteeretara alkarrekin autobusez juatera animatzen ziranak.

Argazkixan:

Goixan (ezkerretik eskumara):

Jaione Unanue, Eloi Uriarte eta M^a Antigua Lugarizaristi.

Behian (ezkerretik eskumara):

Maria Elena Plazaola eta Maite Gorostidi.

IV. Danbaka Musika Lehiaketa



Azken-aurreko emanaldian pop, rock eta folk doinuak Espaloiko agertokian

Xarma, Deabrutu, Seafóid eta Scam taldeak lehiatuko dira gaur, 22:30etik aurrera

Danbakako azken-aurreko kontzertua izango da gaurkoa. Ondarroako Xarma, Aramaioko Deabrutu, Eibarko Seafóid eta Aretxabaletako Scam taldeak igoko dira Espaloiko taula gainera. Helburu bera izango dute: urtarrilaren 14an jokatu den finalerako txartela.

Ohikoa den moduan 22:30ean hasiko dira kontzertuak. Sarrerak salgai daude 5 euroren truke; eta, Gaztekutxan 3 euroren truke.

Estilo guztiak taula gainean

Ondarroatik etorriko da **Xarma** taldea. Euskarazko rocka ekarriko du 2007an sortutako taldeak. Ondoren **Deabrutu** (Aramaioko Iñaki Urizar) igoko da taula gainera. Bateria jotzailea da Urizar; eta, hori da hain zuzen eskainiko duena: muturreko bateria saioa.

Eibarko **Seafóid** 2009an sortu zen taldea da. Folk, pop eta rock doinuak ekarriko dituzte eibartarrek. Ingelesez abesten dute Iñaki, Jorge, Victor, Pau eta Johnnyk. 2004an

Aretxabaletan sortutako **Scam** taldea igoko da azkenekoz taula gainera. Mikel, Imanol, Paulo eta Ander dira taldeko kideak, eta rock musika egiten dute.

Zozketa egingo dute

Hirugarren eta laugarren taldeen emanaldien artean Danbakako materialaren zozketa egingo dute: kamisetak eta CDak zozketatuko dituzte. Kontzertura doazenek sarrerako kutxatxoan euren datuak sartu beharko dituzte.





Gaztañerre 2010

